



Arartekoaren 2013ko apirilaren 22ko ebazpena. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari hainbat neurri gomendatzen zaizkio Eskola Kirola Programan kimu-kategoriako kirolarientzat "errendimenduko" emakumezkoen ligarik ez dagoelako.

Aurrekariak

1. Ama batek erakunde honetara jo zuen 11 urteko alabak ezin zuelako futboleant jolastu bere adineko mutilen baldintza berdinetan, izan ere, "kimu" kategoriako mutilek "errendimenduko liga" batean parte har dezaketen bitartean, ez dago halako aukerarik kategorian bereko neska futbolariarentzat.

Egoera horren aurrean, erreklamatuak Gipuzkoako Foru Aldundiari baimen berezi bat eskatu zion alabak 2012/2013 denboraldian haur-kategoriari zegokion emakumezkoen ligan parte hartu ahal izateko, adinarentatik, bigarren urteko kimua izan arren. Adierazitakoaren arabera, ez zuen inolako erantzunik jaso.

2. Kexa aztertu eta izapidetzea onartu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundira jo genuen eskatzaileak azaldutako kontuei buruzko informazioa eskaini ziezagun.

Foru aldundiak lehenik eta behin bere lurraldean Eskola Kirolaren antolamendua zein den azaldu zigun. Eskola Kirola Programaren arabera, adinarentatik "benjamin" kategorian dauden ikasleek aldi berean hiru kirol egiteko aukera dute, "kimu" kategorian daudenek gutxienez bi eta "haur" kategoriakoek eta hurrengoek, berriz, bakarra.

Kirol Eskolaren banaketa horren helburua ikasleen motrizitatea garatzea da, garapen pertsonal harmonikoa eta osoa lor dezaten kirolaren bidez. Halaber, foru erakundeak azpimarratu zuen, diziplina eta modalitate ezberdinetan parte hartu ondoren, ikasleek "haur" etapatik aurrera gustukoak duten kirola hautatzeko aukera dute, baina beste batzuk probatu izan ondoren.

Era berean, "benjamin" eta "kimu" kategoriei dagozkien jarduerak hezkuntza zentroetan burutzen diren bitartean, "haur" kategorian, orokorrean, kirol-klubetan gauzatzen da. Zentzu horretan, azken kategorian horretan, izaera berezia duen kirol bakarrarekiko ikasketak lotura dago, ikasleek Eskola Kirola Programaren bidez aurreko urteetan zehar lortu dituzten gaitasunak osatu ditzaten.





Izan ere, aldundiak azaldu digunez, kategoria horretan kirola egiteak duen helburua aldatzen da, errendimendura bideratuta. Horretarako, bertan dauden kirolari gazteek kimu-kategoriako bigarren urtetik aurrera lehiaketetan parte hartzea aurreikusita dago, kasu bakoitzean dagozkion kategoriekin dauden akordioen esparruan posible den modalitateetan eta, betiere, euren ikastetxean kirol hori egiten bada.

Foru aldundiak aipatu zuen hala gertatzen dela saskibaloia edo eskubaloia bezalako kirolean, bai mutilen lehiaketei bai neskenei dagokienez. Emakumezkoen futbolari dagokionez, berriz, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin horretarako beharrezkoa litzatekeen akordiorik lortu ez dela adierazi digu, ez bigarren urteko "kimu" kategorian ezta "haur" kategorian ere, modalitate horrek nesken artean lortu duen garapena mutilen artean lortutakoa baino askoz txikiagoa baita. Lehiaketen eskaintza, beraz, "parte-hartzekoetara" mugatzen da, "errendimenduko" modalitaterik egon gabe.

3. Aldundiak azaldu zigunez, denboraldi honetan aldeztu aurretik beste idazki batzuk ere jaso izan dituzte bigarren urteko "kimu" kategoriako ikasleek "haur" kategorian parte hartu ahal izateko baimena eskatuz, baina eskaera horiek guztiak ukatu egin dira, Eskola Kiroleko jarduera Programan ezarritakoaren babesean, eta eskola futbolaren antolamenduari buruzko akordioen jarraipenerako batzordean (aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Real Sociedad SADk osatuta) hartutako erabakiak ikusita. Aldundiak uste du, baimen horiek guztiak onartzekotan, neskek ezingo zutela euren ikastetxeetako taldeekin parte hartu kimu-kategoriari dagokion lehiaketa-egutegian, beraz futboleant bakarrik jokatu zuten eta hori taldeko kirolean hasteko plangintza orokorren programan ezarritakoaren kontrakoa litzateke. Halaber, argudiatu duenez, ikastetxeetan futboleant inskribatuta dauden neskek hilero antolatzen diren eskola arteko partiduetan parte har dezakete, baita opor-garaian antolatzen diren ezohiko txapelketetan ere.
4. Kasu zehatz horri eta erreklamatzailleak eskatutako baimenari dagokionez, alaba ikastetxeko taldean inskribatuta ez zegoela jakinarazi ziguten, 2011/2012 denboraldian hala egon bazen ere. Era berean, neskatila C.D. Hernaniko futbol eskolara maiz joaten zela helarazi zigun, beran, futbol eskola ezberdinen artean antolatzen diren partiduetan parte har zezakeen. Arazoa, foru erakundearen ustez, ez zen adingabeak futboleant jolastu ezin izatea, bere adinari zegokion kategoria batean eta bere kategoriari zegokion parte-hartze egitura ez zen batean egin ezin izatea baizik.
5. Eskola Kirola erregulatzen duen araudia, aldundiak adierazi digunaren arabera, denboraldi honetarako aldatu izan da 2012-2012 ikasturterako Eskola Kiroleko jarduera-programa onesten duen ekainaren 18ko 03-102/2012 Foru Aginduaren bidez. Parte hartzeko arau orokorreari buruzko 2.2.1 atalak xedatzen du denboraldi honetatik aurrera ez dela inolako kategoria aldaketarik



egongo *“Kirol Zuzendaritza Nagusiak baimen idatzia ematen ez badu”* eta baimen hori *“ikastetxeak edo kirol klubak”* eskatu beharko du, kasu honetan C.D. Hernanik. Eta arau orokor bezala ezartzen da ez zaiela kategoriaz aldatzeko baimenik emango *“alebin edo benjamin kategorietako ikasleei, kategoria horietan jarduteak dauzkan berezko ezaugarriengatik”*.

6. Era berean, kexa Arartekora heldu aurretik aldundiko teknikariak adingabearen amarekin egon zirela jakinarazi ziguten. Amari egoera azaldu zioten, bere arazoa idatziz helaraz zezakeela esanez, baina kontuan hartu behar zuela alabak futboleko jolasten jarraitzeko aukera bakarra zuela: bere ikastetxeko futbol taldearekin edo C.D. Hernaniko futbol eskolarekin parte hartzea.

Era berean, jakinarazi digutenez, erreklamatzaileri adierazi zioten foru erakundeak nesken futbolaren antolamendua globalki bideratu nahi zuela, bigarren urteko kimu kategoriako eskola kirolarientzako errendimendu hasierako lehiaketak antolatzeke aukera gaineratuz. Zentzu horretan bermatu zuten, azken denboraldietan, eta honetan partikularki, eskola futbolaren antolamenduari buruzko akordioen jarraipenerako batzordearen barnean, aipatutako antolamendua bideratzeko beharra aipatu zen, baita, nesken futboleko errendimenduan hasierako bidea ezartzeko aukera ere.

Egun horretan bertan erreklamatzaileri e-mail bat bidali zion aldundiari alaba C.D. Hernaniko haur-kategoriako taldean onar zezaten eskatuz, baina administrazio-akats baten ondorioz, 145/2009 Foru Aginduaren arabera baimen-eskaera gisa izapidetu zen. Agindu horren bidez, Eskola Kirola programaren garapenera inguruko baimenak emateko prozedura arautzen da. Akats hori gertatu zen, aldundiak adierazi digunaren arabera, bere zerbitzuek ulertu zutelako eskaera bideratzeko kategoria aldaketa eta, ondorioz, federazioaren baimena behar zuela. Baimenak izapidetzen zituzten teknikariak ohartu zirenean eskaera eskola kirola programaren esparruko gertakari gisa joratu behar zela, baimen gisa izapidetzeari utzi zioten eta C.D. Hernanik Eskola Kirola Programaren izena emateko eskaintako interneteko aplikazioaren bidez kategoria aldaketa hori gertakari gisa kudeatu arte itxaron zuten. Aldundiak onartzen du ez diola eskatzaileari gaizkiulertu horren berri eman, eta C.D. Hernanik adingabea haur-kategoriako nesken taldean inskribatu ez duenez, oraindik ere kontuaren funtsa konpondu gabe dago, hau da, bigarren urteko kimu-kategoriako ikasle batek haur-kategoriako taldean parte hartzea.

7. Nolanahi ere, aldundiak ondorioztatzen zuenez, antzemandako akatsak zuzendu arren eta C.D. Hernanik neskak inskribatzeko eskaera egin arren, eskaera ukatuko zen azaldutako arrazoiak oinarri izanda. Azpimarratzen du ez direla onartzen kimu-kategoriatik haur-kategoriara egindako aldaketak, parte-hartzaileek hainbat kirol egiteko duten eskubidea bermatze aldera. Azkenik, aipatu duenez, adingabea bere ikastetxean kirol anitzeko jardueran zein futbol 8n eta saskibaloiko lehiaketetan zein C.D. Hernanin inskribatuta dagoenez, futbol eskolen artean antolatutako partiduetan parte hartu ahalko zuen.





Nolanahi ere, aldundiak jakinarazi zigun berehala jarriko zela adingabearen familiarekin harremanetan bere eskaeraren egoeraren berri emateko, baita eskaera ukatzen duen ebazpena eta horrek oinarri dituen arrazoiak azaltzeko ere. Era berean, adierazi zuenez, C.D. Hernaniri jakinaraziko zion eskaera hori izapidetu beharko zuela Gipuzkoako Eskola Kirola Programaren jardueretan izena emateko interneteko aplikazioaren bidez.

Jasotako erantzuna ikusita, erakunde honek gomendioak gaineratzen dituen honako ebazpena eman du, ondoko gogoetetan oinarrituta

Gogoetak

1. Arartekoak kasu honetan izandako esku-hartzearen ondorioz, sustatzaileak adierazitako kexaren arrazoietako bat zuzendu ahal izan zen, hain zuzen ere, bere alaba, kimua izan arren, haur-kategoriari dagokion emakumezkoen ligan parte hartu ahal izateko baimen bereziaren eskaerarekiko erantzun faltari zegokiona.

Horren inguruan aldundiari egin genion informazio-eskaerari esker, seigarren aurrekarian azaltzen den moduan, erreklamatzailaren eskaera ez erantzuteko izandako arrazoiak identifikatu ahal izan genuen, baita horrek oinarritutako erantzunik jaso ez izateko arrazoiak ere. Beste kontu bat da erantzun horren edukiak merezi digun balorazioa. Ebazpen honen helburua hura aztertzea izango da.

2. Eskola Kirolaren helburua, gure seme-alaben hezkuntzaren barnean, euren nortasunaren garapen harmonikoa eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea da, ondoren kirola modu jarraian egin dezaten. Hala jasotzen du Euskal Herriko kirolari buruzko 14/1998 Legeak.

Bestalde, lege horren 3. atalak xedatzen duenez *“Euskadiko kirolaren antolakuntza instituzionala herri-administrazioen deszentralizazio, koordinazio eta eraginkortasun printzipioetan oinarrituko da (...) kirol-federazioen, klubuen eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen lankidetzarekin eta parte-hartzearekin”*. Ildo berean jarraitzen du 4. artikulua zera dioenean: *“Autonomia Erkidegoko erakunde komunek kirol arloko eskumen guztiak erabiliko dituzte, salbu eta lurralde historikoetako foru-organoei, udalei edo gainontzeko toki-erakundeei ematen zaizkienak”*.

Beraz, lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiei dagokie araudi egokia ezartzea, baita abian jartzeko eta behar bezala betetzen dela ikuskatzeko beharrezkoak diren neurriak burutzea ere. Eskola Kirolari dagokionez, aldundiek onuragarrien iruditzen zaien sistemaren arabera antolatu ahalko dute, betiere 125/2008 Dekretuan ezarritako printzipioak errespetatuz. Bertako lehen eta



bigarren atalean zera aipatzen du Eskola Kirolari buruz: *“eskola-umeen heziketa integralaren barruan kokatuta egongo da eta heziketa sistemaren helburuekin bat egingo du eta ez da soilik lehiakortasunera bideratua egongo”.*

Funtzio horien erabileran, Gipuzkoako Foru Aldundiak bigarren aurrekarian islatzen diren helburu eta xedeetan oinarrituta antolatzen du eskola kirola. Testuinguru horretan jasotzen da ekainaren 18ko 03-102/2012 Foru Agindua eta horren 2.2.1. atala, izan ere, arau orokor gisa xedatzen du zaiela kategoriaz aldatzeko baimenik emango kimu- edo benjamin-kategoriako ikasleei, *kategoria horietan jarduteak dauzkan berezko ezaugarriengatik*. Irizpide orokor gisa gaitzesezina iruditzen zaigu, erakunde honek ontzat hartzen duen eskola kirolaren filosofiarekiko koherentea baita.

3. Hizpide dugun kasuan, berriz, azaldutako jardueraren azterketan genero ikuspegi bat gaineratu behar izan zen, ez baitago filosofia horrekin kontraesanean, hura osatu egiten du. Hala eskatzen dute Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak zein Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/207 Lege Organikoa. Azken hori, nahiko berria den arren, berantiarra da ikuspuntu historiko batetik.

Izan ere, politika publikoak diseinatu eta bideratzerakoan, kontuan hartu beharra dago hainbat alorretan bi generoen arteko oreka falta, gizartean esleitzen zaizkien itxaropen eta roletan dagoen sexismoaren ondorio izateaz gain, oztopo bat dela pertsonen arteko berdintasun eraginkorrerako. Esparru horietako bat kirola da, eta bereziki maskulinoagoak dauden modalitateetan, futbolean gertatzen den moduan-

Zentzu horretan, diskriminazioa egongo litzateke baldin eta, eskaera gutxiago dutenez, mutilentzat eskaintzen diren antolamendu baliabideak neskentzat egongo ez balira. Nabarmena da alor honetan azken urteetan izandako aurrerapena. Bertan garrantzi berezia dute politika publikoek, horien artean Gipuzkoako Aldundiak sustatutakoek. Hala onartu arren, diskriminazio testuinguru horretan kokatzen da gazte kirolari hori bere kategorian lehiaketa baten bidez -“errendimendukoa”- futbolari gisa garatu ezin izatea, bere adinean mutilentzat bakarrik eskaintzen baita. Kontua zentzu horretan planteatu arren, ez da alde batera uzten emakumeen futboleant, talde edo kirolari kopuru nahikorik ez dagoenez, zaila dela adin guztietan ezaugarri horietako liga antolatzea; planteamenduaren helburua emakumeen presentzia txikiago horren jatorria identifikatzea da, antolamenduko arazo hori eta horren ondorioz kasu partikular bakoitzean pertsonentzat sortutako ondorioak botere publikoek bidera ditzaten, haien betebeharra baita, berdintasun eraginkorra bermatzeko haien esku dauden neurrien bidez.





Foru erakundeak azaltzen duen zentzuan, keza honen bidez agertutako eztabaida adingabeak bere adinari ez dagokion kategoriatan edo bere kategoriatan ez dagokion partaidetza egitura batean jolas dezakeen zehaztera mugatzen da. Guk proposatzen dugun ikuspuntutik, berriz, haratago joaten gara, izan ere, aztertu beharra dago zuzenbidearen arabera ote den hizpide dugun partaidetza egitura bere adina eta kategoriarentzat egokia ez izatea, kontuan hartuta egokitzen joko litzatekeela mutua izango balitz.

4. Azaldutako arauzko esparruaren babesean, ezezko erantzuna nagusitzen da. Eta zentzu horretan, aldundiak apelatzen duen antolamendu arazoa datu neutroa izateari uzten dio benetan den datutzat jotzeko: 3/2007 Lege Organikoaren Lehen Xedapen Iragankorrak aipatzen duen hainbat esparruren maskulinizazioaren ondorioa. Horren aurrean botere publikoen esku-hartzea beharko genuke arau beraren 11.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki: *“Konstituzioak berdintasunerako ezarritako eskubidea eraginkor bihurtze aldera, botere publikoek emakumeen aldeko neurri zehatzak hartuko dituzte gizonen aldean benetako desberdintasuneko egoera nabariak zuzentzeko. Neurri horiek, aipatutako egoerak mantentzen diren bitartean aplikatzekoak, arazoizkoak eta proportzionalak izan behar izango dira kasu bakoitzean lortu nahi den helburuarekiko”*. 4. artikulua, zentzu berean, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko printzipioa finkatzen du arauak interpretatu eta aplikatzeko irizpide gisa. Eta 29. artikulua, kirolaren esparrua berariaz aipatuz, zera dio: *“Kirola garatzeko programa publiko guztiek barneratuko dute emakumeen eta gizonen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasunaren printzipioa, eragingarritasunez kontuan har dadin, programok diseinatzean nahiz betetzean.”*

Bestalde, eta bereziki EAEko esparrurako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legeak genero ikuspegia politika eta ekintza publiko guztietan barneratu behar direla defendatzen du, euskal herri administrazioei dagokien halabeharrezko betebeharrak gisa. Zentzu horretan, aipatutako euskal legearen 3.4. artikulua honela dio: *“Euskal aginte publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.”* Jarraian, agindu hori bera bereziki adierazgarria da hizpide dugun kasurako zera argitzen duenean: *“(…) honakoa da genero ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoa kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea”*, izan ere, horren bidez, genero ikuspegiaren integrazio hori lortzeko botere publikoen ezinbesteko jarrera proaktiboa azpimarratzen da.

Zehazkiago, lege bereko 6. artikulua foru administrazioak aipatzen ditu unean dauden egitura, programa eta prozedurak genero ikuspuntu horretara



egokitzeko (edo, kasuan kasu, *ex novo* sortzeko, beharrezkoa balitz) betebeharraren hartzaile gisa, zera xedatzen baitu: *"Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan diharduela, ondokoak dira foru-administrazioei dagozkien eginkizunak: a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero ikuspegia beren administrazio-jardueran integratze aldera (...)"*.

Azkenik, berdintasunerako euskal legearen 25. artikulua 3. eta 4. ataletan euskal herri administrazio guztiek kirolaren esparru zehatzean dituzten betebeharrak aipatzen ditu, zehazki honakoa dio: *"3. Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztiak praktikatzeari dagokionez emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berdina izatea bermatzeko. 4. Euskal herri-administrazioek emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerari laguntzea sustatuko dute, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. (...)"*.

5. Kasu honetan antolamendu juridikoak eskatutako genero ikuspegia gaineratzeak, gure ustez, bi kontu dakartza berekin: Alde batetik, nesken kirolaren antolamendua bideratzeko beharra eta, bereziki, kimu-kategoriako futbola, haien egoera eta itxaropenak kategoriatan bereko mutilek dituztenekin guztiz parekatu dadin, hau da, baita kirola errendimenduko edo lehiaketako kirolera bideratzen hasteari dagokionez ere. Horregatik ezinbestekoa da nesken futbola sustatzeko lanarekin jarraitzea, seigarren aurrekarian aipatu dugun moduan, batzordeak burutzen duena eskola futbolaren antolamenduari buruzko akordioen jarraipenerako.

Bestalde, genero ikuspegiak kasu honi aplikatutako neurriaren irakurketa zehatza ere dakar -familia interesdunak egindako eskaeraren ukatze-sexuagatiko berdintasunaren esparruan. Irakurketa horren bidez ondoriozta dezakegunez, ukatze hori zeharkako diskriminazioa da, 4/2005 euskal legearen 3.1. b) artikuluan eta 3/2007 Lege Organikoaren 6.2. artikuluan deskribatuta azaltzen den moduan. Ain zuzen ere, foru erakundeak printzipioz neutroa eta zuzena den irizpide bat aplikatzeak, hau da, kimu- eta benjamin-kategorietako kirolarien artean kategoriatan ez baimentzeak -salbuespenak izan ezik- praktikan eragin zuen neska horrek, sektore maskulinotuan batean, bere kategoriatan bereko mutil batek dituen aukera berak ez izatea.

Egoera horrek, eskola kirola erregulatzen duen araudiaren babesean, eskatutako moduko kategoriatan aldaketa bat eskuratzeko aukera eskaintzen duen albuespeneko egoera justifikatzen duen. Aldaketa hori, ondorioz, neurri orekatua eta arrazoizkoa zen, 3/2007 Lege Organikoaren 11.1. artikuluan babesean, generoagatiko diskriminazioa saihesteko helburuarekin. Beraz, gomendagarria litzateke foru erakundeak irizpide hori kontuan hartzea etorkizunean jaso ditzakeen antzeko eskaerak ebazterakoan, azaldutako moduko diskriminazioak ekidite aldera.





Hori guztia, bere kontura edo kirol erakunde pribatuen bidez, emakumeek kirolean duten partaidetza sustatzeko beharrezkoak diren programak eta ekimenak garatzen jarraitzeko kaltetan izan gabe, neska eta mutilen artean esparru horretan dagoen desberdintasun erreala ezabatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskaintzeko helburuarekin. Agerikoa da mota honetako egoerak desagertzen joango direla esparru guztietan genero oreka handiagoa lortzen den heinean, eta prozesu horretan erabakigarria izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde hartutako konpromisoa, bai Genero Berdintasunerako Zuzendaritzaren bidez bultzatutako politikekin, bai zeharka bere sail guztietan. Erakunde honek konpromiso hori ezagutu eta baloratzen du.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Erreklamatzailaren eskaerari ez zitzaion erantzunik eman aldundiko izapidetze akats baten ondorioz. Horren berri izatean, foru erakundeak arduraz jardun zuen akatsa aitortu eta zuzentzeko eta, kimu-kategoriaren jardueren berezko ezaugarriak oinarri hartuta, eskatutako kategoria aldaketa ez onartzeko izandako jarrera motibatuzko. Irizpide orokor gisa egokia eta eskola kirolak duen filosofiarekiko koherentea iruditzen zaigu.
2. Irizpide orokor hori kasu honetan aplikatzean, hala ere, generoagatiko zeharkako diskriminazioa sortzen zuen eta horren aurrean eskatutako kategoria aldaketa neurri orekatua eta arrazoizkoa izango litzateke. Berdintasun eraginkorrerako oztupoak kentzeko betebeharraren babesean, beraz, gomendatzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak irizpide hori kontuan har dezan aurrerago jaso ditzakeen antzeko eskaerak ebazterakoan.